KLAUSULAK	CLÁUSULAS
1.- ERREGIMEN JURIDIKOA.	**1ª. - RÉGIMEN JURÍDICO.**
1.-Kontratu hau obrak egiteko da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legea, azaroak 8ko 9/2017 Legearen 13. artikuluak aurreikusitakoaren arabera. Administrazio-kontratua izango da, eta herri-administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazioa publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera. Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, ondorengo hauek izango dira kontratua arautuko dutenak: 1.- Baldintza ekonomiko-administratiboen plegu hau. 2.- Lizitazioa eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean egongo diren tokiaraubideko nahiz herri-administrazioen kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak. Zehazki, honako arau hauek aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilan 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bategina onesten duena; azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea; eta honako hau izango da arauzko xedapena: 773/2015, Errege Dekretua abuztuaren 28koa, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea	1.- El presente contrato, considerado como de obras, según lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, tendrá carácter administrativo y se regirá por los principios comunes a la contratación de las Administraciones Públicas y, en cualquier caso, por los del Derecho de las Comunidades Europeas relativos a la contratación pública. Conforme a lo establecido en el párrafo anterior, el contrato se regirá: 1.- Por el presente Pliego de Condiciones Económico Administrativas. 2.- Por las normas sobre contratación contenidas en las disposiciones legales y reglamentarias, de Régimen Local y de Contratos de las Administraciones Públicas vigentes al celebrarse la licitación y el contrato, y durante el desarrollo de ambos. En particular serán de aplicación la Ley 7/1.985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el R.D. Legislativo 781/1.986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Vigentes en Materia de Régimen Local, la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y, como disposiciones reglamentarias, el Real decreto 773/2015, de 28 de agosto (BOE nº 213, de 5 de septiembre),el Real Decreto 817/2.009, de 8 de mayo,

partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herriadministrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian.	de desarrollo parcial de la Ley de Contratos del Sector Público y el R.D. 1.098/2.001, de 12 de octubre, por la que se aprobaba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, vigente en lo que no se oponga a las anteriores.
3.- Administrazio-zuzenbideko gainontzeko arauak.	3.- Por las demás normas de Derecho Administrativo.
2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek ezin direnean argitu aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, administrazioaren eskumenak kontuan hartu beharko dira.	2.- Las normas de Derecho Privado serán aplicables como Derecho supletorio para resolver las cuestiones a que puedan dar lugar la interpretación, efectos, cumplimiento y extinción del contrato, que no puedan ser deducidas por las disposiciones citadas en el párrafo anterior; en todo caso, la aplicación de las normas de Derecho Privado no podrá hacerse con olvido de las prerrogativas de la Administración.
3.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainontzeko aukerako baldintzen gainetik egongo dira.	3.- Salvo en las materias estrictamente técnicas, el presente Pliego prevalecerá en todas sus disposiciones sobre el resto de las condiciones facultativas en su caso unidas al expediente.
2.- KONTRATUAREN XEDEA.	**2º.- OBJETO DEL CONTRATO.**
1.- Kontratu honen zuzeneko helburua da URDULIZKO 33. EREMUKO URBANIZATZEKO OBRAK egitea. Obrak onartutako proiektu teknikoarekin bat egingo dira, eta proiektua bera baldintza-orri hauen zati izango da. CPV kodea: 45211360-0, hiria garatzeko eraikuntza-lanak. 2.- Kontratuaren xedeak lote bakarra du. 3.- Ez da onartuko eskaintza alternatiboen proposamenik.	1.- El objeto directo de este contrato es la realización de las obras de OBRAS DE URBANIZACIÓN DE LA UNIDAD 33 DE URDULIZ, con arreglo al Proyecto Técnico aprobado, el cual se considerará parte del presente Pliego. Código CPV: 45211360-0, Trabajos de construcción de desarrollo urbano 2.- El objeto de este contrato viene configurado como un único lote. 3.- No se admitirá la propuesta de ofertas

	alternativas.
3.- LANAK GAUZATZEKO EPEA.	**3º.- PLAZO DE EJECUCION.**
Kontratua sinatu ondoren, 14 hilabetekoa izango da plegu honetan aipatzen diren obrak egikaritzeko epea, zuinketa egiaztatzen denetik aurrera zenbatuta. Nolanahi ere, egiaztatze hori ezin izango da egin, harik eta esleipendunak idatziz eta Udalaren aldetik lanak hasteko berariazko baimena jasotzen duen arte.	Una vez firmado el contrato, el plazo de ejecución de las obras a que se refiere el presente Pliego será de 14 meses, contados desde la comprobación del replanteo. En todo caso, dicha comprobación no podrá efectuarse hasta que el adjudicatario no reciba autorización expresa y por escrito del Ayuntamiento para el inicio de los trabajos.
4.- AURREKONTUA-LIZITAZIO-MOTA.	**4º.- PRESUPUESTO-TIPO DE LICITACIÓN.**
Kontratuaren aurrekontua eta lizitazio-mota 2.958.375,45 eurokoa da (BEZ kanpo). Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz. Lizitatzaileek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergen kuotak ere sartuta daudela ulertuko da beti. Hala ere, eskeintzek zehaztu egin beharko dute era banakatuan kontratu honi dagokion Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren tipoa eta dirukopurua, berau arautzen duen arautegiaren arabera.	El presupuesto del contrato y tipo de la licitación asciende a la cantidad de 2.958.375,45 euros (sin IVA), cantidad que los licitadores podrán mejorar a la baja en sus ofertas, consignando una cantidad concreta y determinada. En las propuestas que formulen los licitadores se entenderán incluidos, a todos los efectos, no sólo los precios de la contrata, sino también las cuotas correspondientes a los tributos de toda índole que graven a los diversos conceptos. El Impuesto sobre el ValorAñadido, no obstante, deberá figurar de manera desglosada en las ofertas, indicando tipo e importe aplicable al contrato conforme a su normativa reguladora.
5.- FINANTZAKETA.	**5º.- FINANCIACIÓN.**
Finantzatu beharreko kontratuaren prezioa ordaintzeko, 2021ko aurrekontuaren bidezko finantzazioa	Para sufragar el precio del contrato a financiar hay prevista financiación con cargo al presupuesto del ejercicio 2021.

aurreikusita dago.	
6.- ORDAINTZEKO MODUA.	**6º.- FORMA DE PAGO.**
Kontratuaren prezioa ordainduko da Obren Zuzendariak hilean egindako lanei buruzko ziurtagarien bidez, enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu ondoren eta udal teknikari eskudunak oniritzia eman eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako tramiteak bete ondoren Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa emateko derrigortuta dauden entitateek fakturak Urdulizko Udalari formatu elektronikoan bidali beharko dizkiote Udalaren Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez.	El precio del contrato se abonará mediante certificaciones mensuales emitidas por el Director de Obra, previa presentación por la empresa adjudicataria de la factura correspondiente y el cumplimiento de los trámites establecidos en las disposiciones vigentes. Las entidades obligadas a la emisión de factura electrónica conforme a lo dispuesto en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, deberán remitir sus facturas al Ayuntamiento de Urduliz en formato electrónico a través del Punto General de Entrada de Facturas Electrónicas del Ayuntamiento.
7.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.	**7º. DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA.**
1.- Prezioa kobratzeko eskubidea, seigarren klausularen araberakoa izango da. 2.- Kontratistak:honako betebehar berezi hauek ditu Plegu honetan jasotako eta arau osagarriak aplikatzeak ezarritako betebeharrez gain: a) Lanak kontratuan zehaztutako denboran eta pertsonalki egingo ditu, proiektuan eta klausula ekonomiko-administratiboen arabera, eta haien interpretaziorako administrazioak kontratistari emandako jarraibideak kontuan hartuta. Era berean, ezin izango du kontratua, osorik edo neurri batean, beste pertsona baten esku utzi administrazioaren baimen espresik	1.- El derecho a la percepción del precio se ajustará a lo dispuesto en la cláusula sexta. 2.- Son especiales obligaciones del contratista, además de las contenidas en el presente pliego y en normas complementarias, las siguientes: a) Ejecutar los trabajos objeto del contrato y llevarlos a cabo personalmente y con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el contrato y al proyecto que sirve de base al mismo y a las órdenes del Técnico Municipal competente, no pudiendo ceder, en todo o en parte, el contrato a otra persona sin autorización expresa de la Administración.

gabe.	b) Llevar a efecto la imposición de la fianza definitiva en el plazo señalado y complementaria cuando fuese procedente.
b) Behin-betiko fidantza zehaztutako epean jarriko du, eta bidezkoa denean, osagarria.	
c) Esleipen-ekintzan zehaztutako epean formalizatuko du kontratua.	c) Formalizar el contrato en el plazo igualmente señalado en el acto de adjudicación.
d) Kontratuaren iraupen osoan administrazio publikoekin kontratatzeko gaitasuna mantentzea bermatu beharko du. Hamabost eguneko epean emango du etor litezkeen ezintasun eta bateraezintasunen berri.	d) Garantizar el mantenimiento de su capacidad para contratar con las administraciones públicas durante toda la vigencia de este contrato, obligándose a notificar en el plazo de quince días las incapacidades o incompatibilidades que hubieran podido sobrevenir.
e) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak ordainduko ditu; honakoak besteak beste: Aldizkari Ofizialetan eta prentsan azaldutako iragarkiak, fidantzen eraketa, eta, hala behar badu, kontratua eskritura publikoan bere kopiekin formalizatzea.	e) Pagar todos los gastos que se originen a consecuencia de la licitación y del contrato, entre otros, a título enunciativo, los causados por anuncios en los Boletines Oficiales, en prensa, constitución de fianzas y, en su caso, formalización del contrato en escritura pública con sus copias.
f) Lan Legeria, Gizarte Segurantza eta Hitzarmen Kolektiboen alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu, eta baita 31/1995 Legean (Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea) eta lege hori garatzen duten errege-dekretuetan jasotako guztia (bereziki langileentzako prestakuntza-ekintzei eta babes-ekipo indibidualen hornidurari dagokienean), eta zergaalorreko xedapenak ere. Horrenbestez, udalkorporazioak eta lanen Zuzendaritzak ez dute inolako ardurarik izango xedapen horiek ez betetzetik etor litezkeen erantzukizunetan.	f) Cumplir cuantas disposiciones se hallen vigentes en materia de Legislación Laboral, Seguridad Social, Convenios Colectivos, y todo lo comprendido en la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales y en los Reales Decretos que la desarrollan (especialmente en lo relativo a acciones formativas para el personal y dotación de equipos de protección individual), así como en materia tributaria, quedando la Corporación Municipal y la Dirección de los trabajos totalmente liberada de cualquiera responsabilidad que pudiera derivarse del incumplimiento de aquéllas.
g) Kontratuaren exekuzioan eta garantia epea bukatzen den arte hutsegiteak eta okerren erantzukizuna	g) Responsabilizarse de los defectos que en la ejecución puedan advertirse durante el desarrollo de las obras y

izango du. h) Lanak egiterakoan nahiz bere obligazioak betetzerakoan Udalari eta hirugarren pertsonei eragiten dizkien kalte guztiak indemnizatzea. i) Euskadiko Erkidego Autonomoan hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren alorrean dauden xedapen guztiak betetze eta, hartara, errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, batetik, eta, bestetik, komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleek eta hartzaileek euskara hutsean egitea erabakitzen badute.	hasta que se cumpla el plazo de garantía. h) Indemnizar todos los daños que se causen al Ayuntamiento y a terceros como consecuencia de los trabajos, así como los producidos en cumplimiento de sus obligaciones. i) Cumplir todas las disposiciones relativas a la doble oficialidad lingüística de la Comunidad Autónoma del País Vasco difundiendo a tal fin todas las rotulaciones, avisos y demás comunicaciones de carácter general en euskera y castellano así como aquellos textos comunicativos que igualmente deberán ser redactados en euskera y castellano, salvo que el remitente y el destinatario decidan hacerlo únicamente en euskera.
8.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK. 1.- Kontratuaren ikuskapena Udalak egingo du bere langile teknikoen bidez. Udalak, lana modu eraginkorrean betetzeko behar diren jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratistari, kontratua arautzen duten klausulak oinarritzat hartuta, eta alkateak dituen goragoko mailako zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenei kalterik egin gabe. 2.- Zehaztutako kopuruak ordaintzeko obligazioa du Administrazioak, seigarren klausulan xedaturikoaren arabera.	**8ª.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LA ADMINISTRACIÓN.** 1.- La inspección del contrato corresponde al Ayuntamiento a través de su personal técnico, quien podrá dictar las instrucciones necesarias al contratista para su eficaz cumplimiento, con base en las cláusulas contractuales y sin perjuicio de las superiores facultades de dirección e inspección del Alcalde. 2.- La Administración vendrá obligada al abono de las cantidades establecidas según lo dispuesto en la cláusula sexta.
9.- BERMEAK. 1.- Ez da behin-behineko bermerik exijitzen 2.- Kontratu honen lizitazioan abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko	**9ª. - GARANTÍAS.** 1.- No se exige garantía provisional. 2.- El licitador que presente la oferta económicamente más ventajosa en la licitación de este contrato deberá

bermea jarri beharko du Udalaren Kutxan, esleipen-prezioaren %5-aren baliokidea, BEZ kenduta. Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, bermea jartzeko jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera kontatuta. Jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du esleipendunak, kontratua egikaritzen amaitutakoan eta, bere kasuan, bermeaaldia amaitu denean. 3.- Sektore Publikoaren Kontratuen Legea, azaroak 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio aseguruz) eta autzen duena indarrean dagoen legeriak araututako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak.	constituir en la Caja de la Corporación una garantía definitiva por importe equivalente al 5% del precio de adjudicación, excluido el IVA. El plazo para su constitución será de 10 días hábiles contados desde aquél en que fuese requerido al efecto. El adjudicatario podrá instar la devolución de la garantía depositada una vez finalizada la ejecución del contrato y transcurrido, en su caso, el plazo de garantía. 3.- Las garantías podrán constituirse de cualquiera de las formas admitidas en el artículo 108 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, Ley de Contratos del Sector Público (metálico, valores de Deuda Pública, aval o seguro de caución) y en las condiciones permitidas por la legislación vigente.
10.- LIZITAZIOAREN JAKINARAZPENA. Urdulizko Udaleko kontratugilearen perfilean (www.urduliz.eus), Internet bitartez emango da kontratazio honen berri.	**10- PUBLICIDAD DE LA LICITACION.** El anuncio de la presente contratación será objeto de publicación a través de Internet, en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Urduliz (www.urduliz.eus).
11.- PARTE HARTZEKO AHALMENA ETA PROPOSAMENEN AURKEZPENA. 1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duten pertsona natural edo juridiko guztiek baldin eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuen kasuren baten	**11.- CAPACIDAD PARA CONCURRIR Y PRESENTACION DE PROPOSICIONES.** 1.- Podrán concurrir a esta licitación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, dispongan de solvencia económica, financiera y técnica y no estén comprendidas en ninguno de los casos de prohibición de contratar señalados en el artículo 71 de la

barnean ez badaude.	Ley 9/2017 Ley de Contratos del Sector Público.
Kontratazio honen esleipenduna izateko betebehar espezifikoa izango da obretarako kontratista gisa izena emanda egotea: G taldean, 6 azpitaldean, 3 kategorian A taldean, 2 azpitaldean, 3 kategorian	Será requisito específico para ser adjudicatario en la presente contratación, estar inscrito como contratista de obras dentro del: grupo G subgrupo 6 categoría 3 grupo A subgrupo 2 categoría 3
2.- Enpresari batzuk lizitazioan batera parte hartzeko interesa dutenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute. Esleipena beren alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariek solidarioki erantzungo dute Administrazioaren aurrean eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute. Kontratutik etorritako eskubideak erabiltzeko eta obligazioak betetzeko beharreko ahalmenak izango ditu ordezkari horrek kontratua bukatu arte.	2.- Cuando varios empresarios estén interesados en concurrir conjuntamente a la licitación podrán constituir una unión temporal al efecto, sin que sea necesaria la formalización de la misma en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación en su favor. En este caso, los empresarios quedarán obligados solidariamente ante la Administración y deberán nombrar un representante o apoderado único de la unión con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo.
3.- Lizitatzaileek honako baldintzetan aurkeztuko dituzte bere eskaintzak: - - Proposamenak Urdulizko Udalaren lizitazio elektronikoko plataformaren bidez aurkeztu beharko dira, egutegiko 26 eguneko epearen barruan, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.	3.- La presentación de ofertas por parte de los licitadores deberá realizarse: - Las proposiciones se presentarán, a través de la plataforma de licitación electrónica del Ayuntamiento de Urduliz, en el plazo de 26 días naturales a contar desde el día siguiente a la publicación en el perfil del contratante del anuncio de licitación.
4.- Bidali beharreko dokumentazioa, bai eta jakinarazpenak eta komunikazioak ere, baldintza-orri hauen II. eranskinaren araberakoak izango dira.	4.- El envío de la documentación, así como las notificaciones y comunicaciones, se ajustarán a lo recogido en el Anexo II de este pliego.
5.- Proposamenak isilpekoak izango dira,	5.-Las proposiciones serán secretas y,

eta, izaera horri eusteko, behar diren bitartekoak erabiliko dira harik eta jendaurreko lizitazioa egin arte.	para ello, se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de la licitación pública.
6.- APKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio gehigarria edo osagarria ematea beharrezkoa denean, administrazio kontratatzaileak eman egin beharko du, gehienez ere eskaintzak aurkezteko finkatutako mugaeguna baino egutegiko 6 eguneko epearen barruan, betiere eskaria data horren aurretik egutegiko 12 egun lehenago aurkeztu bada. Lizitazio-iragarkian jasotako helbide elektronikora bidali beharko da eskari hori.	6.- Cuando sea preciso proporcionar la información adicional o complementaria a que se refiere el artículo 138.3 de la LCSP, la Administración contratante deberá facilitarla, a más tardar 6 días naturales antes de la fecha límite fijada para la presentación de ofertas, siempre que dicha petición se presente con una antelación mínima de 12 días naturales respecto de aquella fecha. Dicha solicitud se efectuará a la dirección de correo electrónico previsto en el anuncio de licitación.
7.- Presazkotzat jotzen diren espedienteetan, epea egutegiko 4 egunekoa izango da, betiere erregulazio harmonizatuko kontratuen eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehenago.	7.- En los expedientes que hayan sido calificados de urgentes, el plazo será de 4 días naturales a más tardas antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas para los contratos sujetos a regulación armonizada.
8.- Argibide-azalpenak kontratatzailearen profilean jartzen direnetan, erantzunak lotesleak izango dira.	8.- En los casos en que las aclaraciones se hagan públicas en el correspondiente perfil del contratante, las respuestas tendrán carácter vinculante.
9.- Lizitatzaileek **HIRU KARTAZAL edo ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN** aurkeztuko dituzte beren proposamenak, honako izen honekin: *"URDULIKO 33. EREMUKO URBANIZATZEKO obren kontratazioan parte hartzeko proposamena"*. Gutunazal horiek eskari orokorrarekin batera sartuko dira.	9.- Los licitadores presentarán sus proposiciones en **TRES SOBRES o ARCHIVOS ELECTRONICOS**, titulados de la siguiente forma: *"Proposición para tomar parte en la contratación de las OBRAS DE URBANIZACIÓN DE LA UNIDAD 33.*, que acompañarán a la instancia general para su registro de entrada.
LEHENENGO ARTXIBO ELEKTRONIKOAK "DOKUMENTAZIOA" azpititulua izango du,	El **ARCHIVO ELECTRONICO PRIMERO** se subtitulará **"DOCUMENTACION"** y en el

eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:	mismo se incluirán los siguientes documentos:
1. Erantzukizunpeko adierazpena, plegu honen I. eranskineko ereduaren arabera. Prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean, Kontratazio Organo edo Mahaiak egiaztagiri guztiak edo zati bat aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, baldin eta uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz, kontratua esleitu aurretik betiere.	**1.- Declaración responsable** realizada conforme al modelo establecido en el anexo I al presente pliego. El órgano o la Mesa de contratación podrá pedir a los licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.
2. Aldi baterako enpresa elkarteak. Zenbait enpresaburu aldi baterako enpresa elkarte baten barruan aurkezten badira, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du bakoitzak, plegu honen I. eranskineko ereduaren arabera. Gainera, aldi baterako enpresa elkartean parte hartzekoak diren enpresaburuek aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen 69.3. artikuluaren arabera, eta enpresa elkarteek kontratua iraungi arte iraun beharko dute gutxienez. Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta zirkunstantziak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.	**2.- Uniones Temporales de Empresarios**. En el supuesto en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, cada empresa participante aportará la declaración responsable conforme al modelo del anexo I al pliego. Asimismo, deberá aportarse el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios que sean parte de la misma de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 LCSP, con una duración que será coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción. En el escrito de compromiso se indicará: los nombres y circunstancias de los que la constituyan; la participación de cada uno de ellos, así como la asunción del compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. El citado documento deberá estar firmado por los representantes de cada una de las empresas que componen la unión.
BIGARREN GUTUN-AZALAK ESKAINTZA	**El SOBRE SEGUNDO** vendrá subtitulado de

TEKNIKOA" izena izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan: Memoria teknikoa: gehienez ere 30 orri izango ditu (DIN- A4), eta dokumentuaren aurkibidea ez da zenbatuko. A3 orriak erabili nahi badira, DIN- A3 orri bakoitza 2 DIN- A4 orri balira bezala zenbatuko da. Memoriak honako hauek eduki beharko ditu: 1.- Obraren antolamendua. 2.- Obra gauzatzeko modua. Balorazioa egiterakoan, kontuan hartuko da proposamenek aukera ematea eraikitze eta urbanizatze-obrak aldi berean egiteko. Horretarako, erantsita doa proposamen bat, urbanizatze-proiektuaren eranskinean; proposamena, hala ere, hobetu daiteke edo eta, justifikatzen bada, aldatu. 3.- Epea justifikatzea. Baloratzekoak izango dira proposatutako obra-planaren koherentzia eta lanen kronologia. 4.- Obraren afekzioak, eta obra mugakideekin gerta daitezkeen interferentziak. Balorazioa egiterakoan, kontuan hartuko da proposamenek aukera ematea eraikitze eta urbanizatze-obrak aldi berean egiteko. Horretarako, erantsita doa proposamen bat, urbanizatze-proiektuaren eranskinean; proposamena, hala ere, hobetu daiteke edo eta, justifikatzen bada, aldatu. 5.- Materialak hornitzeko proposamena. Balorazioa egiterakoan, kontuan hartuko da proposamenek ahalik eta afekzio	la siguiente manera: **"OFERTA - OFERTA TÉCNICA"** e incluirá: Memoria técnica, que no podrá exceder de 30 páginas DIN- A4, si bien el índice del documento no contará. Si se requiere emplear hojas A3, cada hoja DIN- A3 contará como 2 hojas DIN- A4, y que contenga: 1º Organización de la obra. 2º Forma de ejecución de la obra. Se tendrá en cuenta en la valoración, que las propuestas posibiliten la simultaneidad de las obras de edificación y de urbanización. En este sentido, se adjunta una propuesta en el documento Anexo al Proyecto de Urbanización, si bien la misma puede mejorarse y/o modificarse de manera justificada. 3º Justificación del plazo. Se valorará la coherencia del desarrollo y la cronología de los tajos en el plan de obra propuesto. 4º Afecciones de la obra y posibles interferencias con obras colindantes. Se tendrá en cuenta en la valoración, que las propuestas posibiliten la simultaneidad de las obras de edificación y de urbanización. En este sentido, se adjunta una propuesta en el documento Anexo al Proyecto de Urbanización, si bien la misma puede mejorarse y/o modificarse de manera justificada. 5º Propuesta de suministro de materiales. Se tendrá en cuenta en la

gutxien eragitea Urdulizko ospitalearen inguruan eta hirigunean. Eta eskaintza hobeto ezagutzeko beharrezkotzat jotzen diren dokumentu guztiak, bai eta proposamena baloratzeko balio duten guztiak ere, betiere plegu honetako 13. klausulan ezarritako balio-judizioren baten mendean dauden esleipen-irizpideen arabera.	valoración, aquellas propuestas que minimicen las afecciones sobre el entorno del hospital de Urduliz y el centro urbano. Y cuantos otros documentos se consideren necesarios para mayor conocimiento de la oferta y todos aquellos que sirvan para valorar la proposición según los criterios de adjudicación que dependen de un juicio de valor de entre los establecidos en la cláusula 13ª del presente Pliego.
HIRUGARREN ARTXIBO ELEKTRONIOAK "ESKAINTZA EKONOMIKOA" izena izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan: 1. Plegu honen amaieran jasotako Proposamen Eredua (Baldintza Plegu honen I. Eranskina), behar bezala betea. Bigarren eta hirugarren kartazaletan sartzeko dokumentazioari buruz kontutan hartu beharreko argibideak: * Ereduaren arabera idatzi ez den proposamena ekonomiko bakar bat ere ez da onartuko. **Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.	El **ARCHIVO ELECTRONICO TERCERO** vendrá subtitulado de la siguente manera: **"OFERTA - OFERTA ECONOMICA"** e incluirá: 1°- Modelo de Proposición recogido al final del presente Pliego (Anexo I a este pliego de condiciones), debidamente cumplimentado. Observaciones en relación con la documentación en los sobres segundo y tercero: * No se admitirá ninguna proposición económica que no venga redactada conforme al modelo exigido. ** Los errores aritméticos que se detecten en el desglose de la oferta de precios se resolverán tomando como válidas las cifras referidas al precio base y al tipo de IVA aplicable, efectuándose de oficio los cálculos correspondientes para obtener el precio total.
12.- KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA. 1.- .- Hona hemen Kontratazio Mahaiaren	**12ª.- MESA DE CONTRATACION Y APERTURA DE PROPOSICIONES.** 1.- La Mesa de Contratación estará

osaera: -Mahaiburua: Udaleko alkatea -Mahaikideak: Urdulizko Udalako Administrazio Bereziko teknikaria. Urdulizko Udalako kontuhartzailea. Urdulizko Udalako arkitekto Teknikoa. -Idazkaria: Urdulizko Udaleko idazkaria	constituida: -Presidente: El Alcalde del Ayuntamiento -Vocales: La Técnico Administración Especial del Ayuntamiento de Urduliz. La Interventora del Ayuntamiento de Urduliz. La Arquitecta técnica municipal del Ayuntamiento. -Secretario: El Secretario del Ayuntamiento de Urduliz.
2.- Proposamenak ireki baino lehen, Mahaiak, lehenengo artxiboan aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu. Lizitatzaileek, dokumentazioaren kartazalean, aurreko klausulan exijitutako dokumentu guztiak sartuko ditu eta ez da onargarria izango dokumentu horiek berak beste lizitazio baterako erabiltzea, nahiz eta beste lizitazio horretako plikak irekitzeko ekitaldia aldi berean egingo den. Mahaiak ikusiko balu aurkeztutako dokumentazioan akats materialak daudela, komenigarri ikusten badu, gehienez hiru laneguneteko epea eman ahal izango du lizitatzaileak akatsa zuzen dezan. Horretarako eskaerak hobe fax edo posta elektronikoaren bidez egingo dira, enpresak lizitazioan aurkeztu duen dokumentazioan aipatutako zenbaki edo helbidera zuzenduak. 3.- Kontratazio Mahaiak, proposamenak irekiko ditu, Udaletxean (Udalbatzarraren aretoan) proposamenak aurkezteko epea	2.- Con carácter previo a la apertura de las proposiciones la Mesa procederá a la calificación de los documentos presentados en el archivo primero de la oferta. Los licitadores incluirán en los sobres de documentación que presenten todos los documentos exigidos en la cláusula anterior, no siendo admisible la remisión por los mismos al presentado para concurrir a otra licitación, aun cuando el acto de apertura de las plicas correspondientes a la misma se celebrase de forma simultánea. Si la Mesa observare defectos materiales en la documentación presentada, podrá conceder, si lo estima conveniente, un plazo no superior a tres días hábiles para que el licitador subsane el error. Los requerimientos a estos efectos se efectuarán preferentemente mediante fax ó correo electrónico, al número ó dirección indicada por la empresa en la documentación presentada a la licitación. 3.- La Mesa de Contratación, procederá a la apertura de las proposiciones en el salón de Plenos del Ayuntamiento de

amaitu eta hurrengo asteko ostiralean, 11:00etan. Egun hori, bulegoetako egutegiaren arabera lan-eguna ez balitz, irekitzeko ekitaldia hurrengo lanegunera atzeratuko da.	Urduliz, a las 11:00 horas del viernes de la semana siguiente a aquella en que finalice el plazo de presentación de proposiciones. En caso de que ese día resulte inhábil según el calendario de oficinas, la apertura se pospondrá al siguiente día hábil.
Ekitaldi honetan bakarrik onartutzat eman diren eskeintzen bigarren kartazala (eskeintza teknikoa) irekiko da, ekitaldi publikoan.	En este acto únicamente se procederá a la apertura, en acto público del sobre segundo (oferta técnica) relativo a las ofertas contractuales que se declaren admitidas.
Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emando dira kontratugilaren profilean (www.urduliz.eus), nahiz eta jakinarazteko egokitzat jotzen den edozein tresna erabili ahal izango den ere.	Tanto el mantenimiento de esta convocatoria inicial como sus posibles modificaciones serán objeto de publicidad a través del perfil de contratante (www.urduliz.eus), sin perjuicio de cualquier otro modo de notificación que se estime oportuno.
4.- Bigarren kartazalean jasotako atal horietan eskeintzak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak eskeintzen hirugarren kartazala (eskeintza ekonomikoa) irekiko du, ekitaldi publikoan hau ere. Ekitaldi horretarako deialdia ere kontratugilaren profilean (www.urduliz.eus) argitaratuko da, egokitzat jotzen den jakinarazteko edozein bidea erabiltzen bada ere.	4.- Una vez valorada la oferta relativa a los apartados recogidos en el sobre segundo, la Mesa de Contratación procederá también en acto público a la apertura del sobre tercero (oferta económica) de las ofertas. La convocatoria para este acto será asimismo objeto de publicidad en el perfil de contratante (www.urduliz.eus), sin perjuicio de cualquier otro medio de notificación que se estime oportuno.
5.- Azkenik Mahaiak esleitzeko proposamena luzatuko dio kontratazio-organoari.	5.- Finalmente la Mesa elevará al órgano de contratación su propuesta de adjudicación,
6.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskeintzak baloratzeko beharrezkoak jotzen diren txosten juridiko edota teknikoak eskatu ahal izango ditu Kontratazio Mahaiak	6.- La Mesa podrá solicitar en cualquier momento los informes técnicos y jurídicos que considere necesarios para el análisis de la documentación aportada por las empresas y para la valoración de las ofertas.
7.- Eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoak amaitu ondoren, ekitaldi horri buruzko	7.- Transcurridos los actos públicos de apertura de ofertas, los participantes en el procedimiento podrán acceder a la

dokumentazioa kontsultatu ahal izango dute prozeduran parte hartu dutenek, Urdulizko Udalaren egoitza elektronikotik.	consulta del documento relativo a este acto desde la sede electrónica del Ayuntamiento de Urduliz.
13.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.	**13ª.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN.**
Ondoko irizpideen arabera egingo da esleipena:	La adjudicación se resolverá de acuerdo a los siguientes criterios:
A) AUTOMATIKOKI APLIKATZEKO IRIZPIDEAK:	**A) CRITERIOS DE APLICACIÓN AUTOMÁTICA**:
